



## ENPRESEN KONFIANTZA

# Ekonomia jarduera berriro aktibatu da Eurogunean


PMI indize konposatuak adierazten duenez, martxoan Euroguneak jardueraren hazkundeari ekin zion berriro, lau hilabeteko ahultasunaren ondoren. Hala, indize hori, BPGaren adierazle aurreratutzat jo ohi dena, 52,5era igo zen, uztailetik izandako daturik altuena baita. Aurreko buletinetan adierazi den bezala, alde nabarmena dago sektore bakoitzaren bilakaeran. Alde

batetik, manufakturek ezohiko indarra erakusten dute eta 63,0 mailara iritsi ziren, 1997ko ekainetik erregistratu den baliorik baikorrena. Bestalde, zerbitzuek bilakaera apalagoa izan dute, pandemia kontrolatzeko ezarritako mugikortasuneko murrizketek kaltetuta, eta 48,8an kokatu dira, beherakada txiki bat izan dutela adieraziz.


### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2021EKO MARTXOA:


52,5




### MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



### PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




### PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Egoera ekonomikoa bikaina da Alemanian, herrialde hartako adierazlea 56,8ra iritsi baita, eta 2018. urtearen hasieratik jasotako erregistro guztiak gainditu ditu. Frantziak, berriz, dezente hobetu du bere posizioa, eta, nahiz eta oraindik jaitsiera eremuan dagoen (49,5), hedapen eremutik geratu dago.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuaren susperraldia oso deigarria da, 49,6tik 56,6ra igaro baita hilabete bakar batean, herrialdearen txertaketa erritmo azkarrari esker. Indarra are handiagoa da AEBetan (59,1), txertaketak eta administrazio berriaren gastu planek lagunduta. Azkenik, Japonian oraindik ere ikusten da nolabaiteko ahultasuna (48,3).


### PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



### PMI KONPOSATUA. AEB



### PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit.